

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



3. maila (C1) | Idazmen-proba

Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Idazlana	15	30	90 min

2014ko bigarren deialdia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO





Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko **90 minutu dituzu.**

3. mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberrako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauak: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia...
Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Zaintza partekatua

Egoera:

Gaur egungo Kode Zibilean arautzen denez, zaintza partekatua bakarrik ezartzen da ama eta aita ados daudenean edo bietako batek eskatu eta fiskalak aldeko txostena egiten duenean. Banaketa-kasu gehienetan, amari ematen zaio haurren zaintza. Justizia Ministerioak iragarritakoaren arabera, hurrengo hilabeteetan prest egongo da Kode Zibila aldatzeko zirriborroa. Bertan aurreikusten diren aldaketek arabera, epaileak izango dira erabakiko dutenak, kasuan kasu, gurasoek zaintza partekatua egingo duten ala guraso bakarrik izango duen haurren zaintza.

Eginkizuna:

Euskal Herriko Guraso Bananduen Federazioko kidea zara. **Pozik** zaude iragarritako lege-aldaketarekin, izan ere, aurrerapausoa dela uste duzu zaintza partekaturako bidean. Horren harira, **herriko aldizkarian iritzi-artikulu**a idaztea erabaki duzu, **xede** izanik orain arteko **egoera zein den azaltzea**, bi gurasoek seme-alabak hazteko duten eskubidearen aldeko **argudioak ematea** eta zaintza partekatuak dituen **abantailak nabarmentzea**.

Lagungarriak:

- Herritarren % 80 zaintza partekatuaren alde.
- Amak eta aitak eskubide bera umea hazteko, baita ardura bera ere.
- Zaintza guraso batek bakarrik duenean, hoztu egiten da seme-alaben eta zaintzarik ez duen gurasoaren arteko harremana.
- Arazo psikologiko ugari saihesteko balio dezake.
- Alde txarra: haurrak edo gurasoak etxe batetik bestera ibili beharra.



2. gaia: Elkartasunerako bankuak

Zure eskualdean, elikagai-bankua antolatu duzue. Bertan, berrehun bat boluntariok egiten duzue lan, baina, halere, azkenaldian lanez gainezka zabilzate, gero eta jende gehiago baitago elikagaien premian. Egoera zein den ikusita, herritarrengana jotzea erabaki duzue laguntza eske. Horretarako, **gutuna idatziko diezue, gero etxez etxe banatzeko**.

Eginkizuna:

**Eskualdeko elikagai-bankuaren ize-
nean**, idatzi **herritarrei** zuzendutako **gutuna**, xede izanik jende askoren **egoera zein larria den gogoraraztea**, elikagai-bankuan egiten duzuen **lanaren berri ematea**, **elkartasunaren garrantzia nabarmentzea** eta herritarrei **laguntzeko eskatzea**, bai elikagaiak emanaz, bai elikagai-bankuan boluntario-lana eginez.

Lagungarriak:

- Elikagai-bankuaren xedea: janaria bildu eta horren beharrea daudenen artean banatu.
- Elikagaien iturria:
 - Saltoki handiak: elikagai galkorrak (fruta, haragia, arraina...)
 - Erakunde pribatuak, herritarrak eta abar: galtzen ez direnak (latak, lekaleak, gailetak...)
- Pertsona bakoitzak 150 kilo janari botatzen ditu urtean, batez beste.
- Lurraldeko Elikagai Bankua: 2013an, 546 tona janari batu; 36.000 pertsonari banatzeko.



**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**